



HODEIERTZ, ARRAKASTAZ BETERIKO 25 URTE

1983. urtean sortu zuen ilusioz beteriko gazte talde batek abesbatza; izen handiko taldea da egun 6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata 2008-05-03

VIURTEA 1.424.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



N. URBIZU

LEIRE OLABERRIA TXIRRINDULARIA

«Bizikleta gainera igotzen naizen bakoitzean lasaitu egiten naiz»

IKAZTEGIETA Handienen artean dago Olaberria munduko pistako txirrindularitzan; uda honetan Pekingo Olinpiar Jokoetan izango da 2-3



I. GARCIA

IZASKUN INTZA KARRERA AMAIERAKO ESPAINAKO SARIDUNA

«Gauzak ongi egiteko ikasten ari zarena gustatu behar zaizu»

ANOETA Herri Lanetako ingeneritza teknikoan lortu du saria; egun ikasketekin jarraitzen du 7

Udalak San Martin ermitako obren lizentzia eskaera onartu du

AMEZKETA EAEk AAMren epaiketari buruz aurkeztu zuen mozioa onartu dute 4

Musika, antzerkiak, monologoak eta jaiak, hilabete honetan zehar

TOLOSA Maiatza mamitsua antolatu dute Udalak eta herriko hainbat elkartek 5

zeu
ileapaindegia
ileapaindegi berritua

har ezazu zure txanda
943 671 427

santa klara 8. Tolosa

B.H.I. I.E.S.
OR XE
TOLOSA

Tolosaldeko Euskal Eskola Publikoa
Batxilergoko Irakasgaien Eskaintza Osoa

ORIXE
Bigarren Hezkuntzako Institutua

BATXILERGOAK
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Maiatzaren 5tik 9ra

hirukide

Elizberrigoo
Zuzendakari eta Zuzendakari
Kontseilariak eta Zuzendakari
Gai Hainbat: Elkarrekin Lanatu

eta gainera...
(Elizberrigoo Zuzendakari)

E Elkarrizketa**LEIRE OLABERRIA** ▶ Pista txirrindularia**Ikaztegieta** »

Munduko pista txirrindularirik onenatarikoa izanik, Pekinera joango da Olinpiar Jokoetara, bere ehuneko ehuna ematera.

NEREA URBIZU

Hainbat berri on jaso ditu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK berari esker: irakurlea pista kirolera gehiago hurbiltzea lortu du Leire Olaberriak (Ikaztegieta, 1976). Azken albiste ona, bat aukeratzearen, datorren abuztuaren Pekingo Olinpiar Jokoetara joango dela da. Atsedean bila eta arnasa hartzeko zein leku hobea sorterrria baino: han egoteko ere aprobetxatu du Leirek, inoiz ez baita ahaztu behar zein den errealitatea bizikletatik jaitsitako unearen ondoren.

Pistan duela 4 urte inguru hasi zinen. Berandu, esan daiteke.

Bai, abantaila da zentzu askotan. Nik badakit zer den lan normal bat izatea, badakit egunerokotasuna zer den... Esperientzia horiek izan ditudala ikusteak, hori abantaila da. Txirrindularitza oso mundu xurgatzailea da, eta azkenean zure inguru guztia txirrindularitza da, klan batean bezala bihurtzen da.

Bizikletatik kanpoko bizitza hori behar da, beraz?


Horretan laguntzen du txirrindularitza kanpoko bizitza horrek. Mundu horrekin lotuta ez dauden pertsonak esaten didate: «ondo, ezta?», horren atzetik zer dagoen ia jakin gabe, eta hori ere oso ondo dago, errealitatera bueltatzen gaituelako. Askotan kirolariok oso exijenteak gara geure buruarekin, eta guretzat gaizki egin ditugun gauzek haserrarazten gaituenek, besteengan ez dutela halako eraginik ikusten da. Hori oso garrantzitsua da. Kirolean oso momentu gozoak bizi ditzakezu, baina egun batetik bestera dena alda daiteke.

Kirola betidanik egin izan duzu. Atleta izan zara ere.

Bai. Atletismoan urte pila egin nuen eta hasieran ematen zuenez, ondo ariko nintzela zirudien. Tolosako Berazubini hasi nintzen. Gustuko nuen egiten nuena baina nerabea nintzen eta ez neukan argi zer nahi nuen, gauza asko egin nahi nituen. Hemen nengoen baina egon nintkeen beste edozein tokitan. Momentu onak baino, txarrak pasa nituen. Ikasi eta lana egiten nuen aldi berean: entrenatzen jarraitzen nuen ohitura bat zelako eta gustuko nuelako. Lagunak ere nituen... ohitura zen. Azkenean mutilak pistari hasi behar nuela esan zidan.

Eta erotzat hartu zenuen.

Nik ez nuen bizikleta inoiz hartu. Nolatan sartu behar nintzen pistari? Probatzeko esan zidan. Anoe-



N. URBIZU

«Bizikletara igotzen naizen aldiro lasaitu egiten naiz»

tan sartu nintzen eta gainera, Anoetako peralte oso-oso handia da. Neure buruari galdetu nion: «eta zergatik ez?», ez lehiatzeko gogoarengatik, berez, halakoa naizelako, denetik probatzea gustatzen zaidalako. Eta hor hasi zen guztia.

Ez nuen bizikleta inoiz hartu. Nolatan hasi behar nintzen pistan? Mutilak probatzeko esan zidan

Asko bidaiatzen dugu, ia negurik somatu gabe. Halere, gorputzarentzat nahaste handia da

Zailtasunak gainditzen dituzula ikustea polita da baina gaztetan ez gara horiek baloratzeko gai

Aurreko Olinpiar Jokoetan, Ateenan, pista ikusi zenuen?

Bai, hiru edo lau hilabete neramatzan bizikleta hartuta, eta Gema Pascual zen nire erreferentzia. Han ikusi nuen probetan. Handik urte batera bere ondoan nengoan Espainiako Txapelketan berarekin lehiatzen! Mundu berria, dena berria zen niretzat. Hura ikusi nuen han eta sinestezina zen. Beti harreman ona izan dugu: orain Olinpiar Jokoetara joateko postu bat zegoela biek bagenekien eta hori ez da xamurra izan. Baina kirolarion asmoa beti da lana ondo egitea, eta hori bilatu dut.

Nola eramaten da kirolari on bat izatearena burura igo gabe?

Nire ustez, kirolean oso garrantzitsua da jende helduaz inguratzea. Kirolariok garbi daukagu beti aurrean egotea dela gure helburua, indartsu. Kirolaria pistara sartzen denean joaten da intentzio guztiekin, batzuetan irabazteko eta beste batzuetan galtzeko, baina jakin behar da pistako lana pistan uzten eta hortik kanpora pertsonak izaten, gure balioekin. Batzuetan ondo

egiten da lana baina beste batzuetan ez, eta ez da ezer gertatzen. Hori onartzen jakin behar da.

Hori zaila da, ez?

Bai, kiroleko arazo asko horiek dira. Emakumeok oso fama txarra daukagu, batez ere txirrindularitzan. Nire kasuan, betidanik mutilekin izan dut harreman handia kirolean batez ere, eta kasu horietan euren oso antzeko ikusten dut neure burua, hau da; arazo bat baldin badut baten batekin, hitz egitea nahiago izaten dut, argitzeko. Nesken artean, agian ez da hainbeste hitz egiten eta inbidiak gehiago dira; gauzak onartzea gehiago kostatzen zaigu.

Taldean ere, orain gutxi arte mutilekin ibili zara.

Bai, eta beti oso eroso sentitu naiz, beti mutilekin. Orain Eneritz ere dago eta ondo ere. Egun pila egiten ditugu elkarrekin eta batzuetan esaten diet taldekideei: «Nola botatzen dudan faltan emakumeen arteko elkarrizketa bat...». Baina oso esperientzia polita izaten ari da. Asko bidaiatzen dugu: pentsa,

gabe ez nuke dominik lortuko, dudarik gabe, baina oso konziente izan naiz ematen ari nintzen pauso guztiekin eta banatzen jakin izan dut pausobakoitza. Anoetankorrikan hasi nintzen kadete mailako mutilekin, gero jubenilekin, eta

Mundialaren ondoren ondo bukatu nuen fisikoki baina buruz atsedena behar nuen

Amets honetan denak izan dira partaide eta lagundutako guztia eskertzea gustatzen zait

gero afizionatuekin. Lan egiten duzu baina jabetzen zara bide horretan egon den errendimendua, eta horrela kirolari batek oso gustura egiten du lan. Gogorra izaten da trabatu egiten zarela ikusten dutuzuean, ikustean ez duzula hobetzen. Horretarako entrenatu behar: oso gustuko dut entrenatzea.

guntzen: eurei eskaintzeko gogo bat nuen. Dudarik gabe niretzako egiten ditut gauzak baina bidean izan dudaguntza oso eskertzeko izan da. Denekin gozatzeko eguna izan zen: oso sentsazio onak bizi izan nituen. Egun horretara iristeko bide horretan ere egun asko izan dira eta gauza berri asko ikasi ditut. Denek izan dute garrantzia.

Zerekin ikasi duzu gehienbat?

Gaizki egindako gauzekin. Gauzak ongi egiten dituzun karrera horretatik badakizu zer egin duzun ondo. Gaizki egindakoetan zure akatsak, hartutako erabakiak... ez direla egokiak ikusten dira eta beste baterako balio ditu. Batez ere puntuazioko proba batean, taktikoak diren probetan. Asko ikasi dut eta oraindik asko falta zait ikasketek.

Pistako lau urte hauetan zein pertsona gogoratzen dituzu?

Zorionez jende askoz gogoratzen naiz. Atletismoko gauzak alde batera utzita, mutil-lagunak pisu handia izan zuen pistan hasteko

tutzen hasi gutxinaka, eta azkenean selekzionatzaileak erabakita zeukan ni joango nintzela: rankinean ni nengoan lehenengo. Aldaketa asko izan dira bidean eta ez dut beldurrik izan erabakiak hartzeko momentuan.

Hilabete hauetan zer egingo duzu?

Mundialaren ondoren ondo bukatu nuen fisikoki, baina buruz atsedena behar nuen, urte hau oso intentsoa izan delako. Hemendik aurrera egunero Pekin buruan izango dut. Kontzentrazioak egingo ditugu hilabete hauetan. Ustez Mallorcan (Herialde Katalanak) entrenatuko dugu, kontzentrazioak egingo ditugu hainbat lekutan. Hori da asmoa: tartean entrenatu, atsedena hartu, zaindu... Kirol biziak egunik politena izan daitekeen horretarako prestatzen. Fisikoki eta buruarekin lanean aritu beharko gara. Gaitasun guztiak ehuneko ehunean emateko prest egon behar gara.

Munduko Kopan Manchesterren gauza asko lortu zenituen. Munduko Kopako faserik onena izan da zuretzat?

Bai, proba hauetarako oso indartsu izan behar zara, bestela ezin zara lehiatzerara atera. Aurreko urtean Mallorcan izan nintzen eta sasoirik onena orduan izan nuen. Aurreko Manchesterren, eta ondo zaudenean eta hori jakinda, berdin zaizu zein proba egin behar duzun. Faktore asko daude eta urteekin behar den lasaitasun hori lortzen da. Psikologikoki oso prestatua egon naiz: beti ere, bezperan, proba baten aurretik urduki nago, baina behar diren nerbio horiek sentitzen ditut. Hala ere, txirrindulariaren gainean jartzen naizenean lasaitu egiten naiz. Mundialean marka ona lortu nuen, baina egun horretan hobe egin nezakeela badakit. Tira, pasatu da, eta pozik nago, baina hobetuko dudala ziur nago.

Ez ahazteko momentuak...

Bai, eta sentsazioak. Lortutako emaitzak fase horien guztien ondorio bat izan dira: kuriozosa da, baina gero zure eguneroko bizi-tzan faltan botatzen dituzun momentuak dira. Badirudi bizirik mantentzen zaituzten momentuak direla. Asko gustatzen zait sprint bat egitea, taupadak sentitzea, 60 kilometro orduko abiadurara... Barruan zaudenean asko harapatzen zaituen sentsazioa da. Atsedenean nagoela, berriz faltan botatzen dut topera egote hori.

Olinpiar Jokoekin polemika dago. Zer duzu esateko?

Polemika horretatik at, egia esan. Azken urte honetan kilometro asko egin ditut, bide luzea, lan handia sailkapen hau lortzeko. Kirolari bezala sailkapena lortzea izan da nire lana, eta kanpoan dauden arazoak politikoen arazoak dira. Pistako lanak moldatu behar izan ditut eta politikoei haiei arazoak moldatu beharko dituzte.



N. URBIZU

» DI-DA BATEAN

- **Zure dohain bat.** Txipa aldatzeko erraztasuna.
- **Pista bat.** Manchesterrekoa.
- **2003ko abuztua.** Nire hasierako pedalkadak.
- **Proba hasi aurretik...** Zein aurkari dagoen begiratu, lasai egon, nire kasa ibili...
- **Proba bukatu ondoren.** Emozioak ateratzen dira, onerako eta txarrerako. Gaizki egindako gauzak zuzentzeko garaia ere bai.
- **Doping-a.** Goi mailako kirolean zentratuta dagoen arazo handi bat.
- **Jan ezin duzun zerbait baina gustura jango zenukeena.** Ez naiz horrekin zorutzen. Ez dut sakrifizioirik egiten.
- **Gustuko txirrindulari bat.** Asko... Indurain bere garaiari, Olaño, Somarriba, Armstrong...

negurik ez dut ia somatu. Halere, sekulako nahastea da gorputzarentzat. Pila bat nabaritzen da.

Eta etxera bueltatzerakoan...

Gauza asko pilatzen dira. Etxera etorri, bi egun indarrrik gabe pasa, eta gutxinaka indarberritzen joan. Ikaztegiatara etortzeak ondo egiten dit. Garrantzitsua da jakitea non zauden eta gauzak ondo edota gaizki ere bai joan daitezkeela. Pistako txirrindularitza oraindik kirol txikia da, olinpiar joko delako indar pixka bat badauka eta orduan garrantzigeiago ematen zaio urte horretan komunikabideetan. Baina gu momentu oro konziente gara non gauden. Etxean, bi egun horietan, lortu duzun horretan pentsatzen da, eta orduan konturatu zara lortu duzunaz.

Zer nahiago duzu, lortu nahi duzun horren ibilbidea gogoratu edo lortutako hori eskuan izatea?

Dena lotuta dago. Aurreko lan hori

Joan den urtean erori egin zinen. Une gogorak?

Bai, Manchesterren erori nintzen, eta saiheats pare bat hautsi nituen, baina handik hilabete batera lasterkeretan ari nintzen berriz: hainbeste gogo neukan aritzeko eta ikasketek... Baina oso konziente izan naiz beti eta banekien bukarrera on bat izan zezakeela. Oso jabe nintzen ere zailtasunak zeudena eta lortzen baldin banuen amets bat izango zen. Bidean egindako lanak asko bete nau. Zailtasunak gainditzen direla ikustea polita da. Gaztetan ez gara gauza horiek baloratzeko gai.

Zure ibilaldian zein momentu gogoratzen duzu biziki?

Mundialeko eguna oso berezia izan zen. Txirrindulariaren bizitzan egunik garrantzitsuenak da, joan izan pila, gauza eta ilusio pila zegoen. Nire ibilbide guztian egia da jende talde handia izan dela la-

hartu behar izan nuen erabaki horretan, Bruesa taldea ere bai gogoratzen dut, atletismo munduan asko lagundu zidan Oskar Ezkerrek ere bai. Berak esan zidan ezin nuela kirola horrela utzi... Txirrindulari izateko momentuan Cespa Euskadiko proiektuak ere garrantzitsuak izan du: ez nuke bestela izango pistara dedikatzeo aukera. Guztien lan bat izan da: Josetxo Santxineneak ere lagundu zidan eta pistako hainbat sekretu eman zizkidan. Izen asko gogoratzen ditut. Amets honetan denak izan dira partaide eta lagundutako guztia haiei eskertzea gustatzen zait.

Olinpiar Jokoetan aspaldi ari zinen pentsatzen.

Espainia mailan Gema Pascual zen indartsuena, gauzak horrela joanda bera joango zen. Azken urtean oso zorte txarra izan du. Nik asko hobetu behar nuen postu hau lortu nahi banuen: neure burua es-



Inguruko mendiak ezagutzuz

ANOETA ● Anoetako Gaztetxeak mendi-martxa antolatu zuen atzo. Herriko meategietatik barrena Basa-gainera igo ziren gero han bazkatzeko. Ondoren txu-

pinazioa eta sagardo-dastaketa izan zituzten. Gauean, berriz, EH Sukarra taldearen kontzertuaz gozatu ahal izan zuten Gaztetxean. HITZA

Ermitako obrak onartu dituzte

Amezketak » EAE-ANVK aurkeztutako mozioa onartu dute, baina «auziko galeretarako laguntza ekonomikorik gabe».

Larraitz bidearen ondoko eremuko hirigintza egitasmo proiektuaz, «oraindik ez da %1eko abala aurkeztu eta hau aurkeztu bitartean ezin da legez proiektu hau onartu». Ifurrita alkatearen hitzetan. Beraz, adierazten da abala aurkeztu bezain laister pleno baten deialdia egingo da, erabakia hartzeko.

EAE-ANVren mozioa onartuta EAEk mozioa aurkeztu zuen, amnistia-erako mugimenduaren aurkako auziaren aurrean eta guztia irakurri ondoren, onartu egin zuen Amezketako Udalak. Ez ordea, ANVk eta AELe (Amezketak

rrrok Elkarlanean Taldea) proposatu duen 200 euroko diru laguntza ematearena.

Ondorengo eskakizun eta konpromisoak zehazten ditu besteak beste mozioak: «Elkartasuna eta babesa luzatzen diegu amnistia-erako mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militanteei».

200 euroen diru laguntzaren proposamena «auzi honek dakartzan galera ekonomiko eiaurre egiteko» izango litzateke. AEL eta EAE-ANV ados zeuden proposamenarekin. KBTk (Kimu Berriak Taldea), berriz, aipatu zuen diru aportaziorik gabe onartzen zutela mozioa. Horrez gain, «orain arteko gaiak, batzorderen batetan aztertu eta eztabaidatzen dela plenera ekarri aurretik», zehaztu zuten. Aipatu zuten diru laguntzaren orde eztabaidaren bat edo beste ekimenen bat presta daitekeela «kompentsazio modura».

Eztabaidaren ondoren, EAren ordezkariak esan zuen «forma aldetik beharbada hutsuneren bat egon zitekeela» mozioa aurkeztu aurretik, «aztertu ez izanagatik».

Laburrak

Gaur ez da Hitzako partidarik jokatu

PILOTA ● Gaur ez da Hitzako Pilota Txapelketako partidarik izango zubia dela eta. Antolatzaileek adierazi dute datorren astean hasitekoak direla, hilaren 9tik aurrera. Beraz, gaur Beotibarren ez da partidarik izango. Bestalde, Herriarte-ko Txapelketan Berastegiko pilotariak aurrera egingo dute eta Berbarren aurka aritu beharko dira datorren astean.

Festa Batzordea osatzeko bilera etzi izango da

AMEZKETAK ● Amezketako festak antolatzeko batzordea bat eratzearen beharra ikusi dute herritarrek. Hori osatzen joateko, Festa Batzordea osatzeko bilera egingo dute etzi, 20:30ean, balioanitzeko gelan. Dagoeneko bost bat lagunek eman dute izena taldea osatzeko.

Harri Jaia datorren astean ospatuko dute

BEDAIO ● Hilaren San Bedaion Harri jaia ospatuko dute, duela urte mordo bat izan zen harri jasa gogoratuz. Ondoren, Kultur Asteburua ere izango dira. Gogotsu presatatu dituzte egun hauek.

Orexako jaien baitan, txistu soina, musika, apustuak eta goitiberak

ERREDAKZIOA

Gaur, Santa Kruz Eguna izanik, Orexako festetako egunik handiena izango dute goizetik hasita. Oilarren jaitsierak iragarri zituen festak atzo gauean, eta bi egun dauzkate aurretik orexarrekin.

Gaur 12:00etan herriko txistulariek diana egingo dute, eta ondoren herriko auzoen artean apustua izango da. Aurtengo berritasunen artean goitiberen txapelketa izango da eta hauek arratsaldean, 18:00etatik aurrera abiatuko dira aldapa beheara. 21:00ak aldera aforian herritarrak elkartu egingo dira, ondoren erromeriaz gozatzeko. Elortza eta Iñaki trikitalariak daude horretan, musikan. DJ Bull ere ez da faltako.

Baratzuri zopa eta kalejira izango dira gehien irauten dutenentzat. Orduan ere musika izango da.

Bihar, arratsalde alai

Festei amaiera emateko 18:00etan herri kirolak antolatu dituzte aizkolari eta harri-jasotzaileekin. Bukatzeko, sagardo dastaketa eta bertsolariak izango dira.

Zurea da hitza info

Gaur, Zazpie Pasako finalderdiak Alegian

ALEGIATIK

Aspaldiko partez, Zazpie Pasa Pilota txapelketa ere aurrera dioja eta dagoeneko finalerdietan gaude. Gaur bertan jokatuko ditugu, Alegiako pilotalekuan 16:00etan hasita.

Hauek izango dira partidua: banaka lau terdian: Aranburu Garikoitzen aurka eta Txanpio Arizten kontra.

Binaka, berriz, Iriarte-Zubeldia eta Tolo-Asier, eta bigarren parti-

duan Garikoitz-Beñat eta Ariz-Aitzu.

Partidu politikak izango dira denak ere, pilotari onak baitaude. Txuriz jokatuko dute, nahiz bada-kigun batzuk galtzak bilatzeko marabillak egiten ari diren. Baina esan digute bilatuko dituztela, besterik ez bada gutxi xamar zikintzen pintoreren bateri eskatuko omen die.

Jendeari deialdia luzatu nahi genioke frontoira inguratuzko.



'121 amu KOSTALDEA EZAGUTZEKO' liburua

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta 1. kupoia
berriarekin



Iragarki laburrak


SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Kocker arrazako txakurkumeak saltzen dira. Interesatuek deitu: 943 67 0142.

■ **Etxea.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onan, oso merkea. 665 70 8635.

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuek deitu: 685 22 70 58.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gustu eta aukera guztietako ekitaldiak izango dira hil honetan, Tolosan

Tolosa » Musika, antzerkiak, monologoak eta jaiek izango dira maiatzaren ere, hiriko kale eta antzokietan.

ERREDAKZIOA

Hilabetero bezala, Tolosako Udalak eta hainbat elkarte antolatuta, ekitaldi ugari izango dira maiatzaren zehar.

Aranburu Jauregia

- **Anjel Arbe.** *Biogeometriak* erakusketa dago ikusgai maiatzaren 10era arte.
- **'Artea oinez 08'.** Nafarroa Oinez 08k antolatuta, erakusketa zabalik egongo da maiatzaren 10era.
- **Jose Mari Gorrotxategi.** Gozoglearen 55 urte argazkitan bildu dituzte. Erakusketa ikusgai izango da hilaren 16etik ekainaren 14ra.

Kultur Etxea

- **'Euskaraz bai' erakusketa.** Gal-tzaundi elkarteak antolatutako

erakusketa ikusgai izango da hilaren 5etik 11ra bitartean.

- **Sahararen aldeko jardunaldiak.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta, hilaren 12, 13 eta 15ean izango dira.
- **Gizarte parte-hartzea formazio ikastaroak.** Baketik, Arantzazuko Bake Zentroak antolatuta 18:30ean izango dira, hilaren 13, 14 eta 15ean.
- **'Berria' egunkariaren 5. urteurreneko ekitaldia.** 19:00etan izango da, hilaren 14an.
- **Argazki erakusketa.** Gehitu elkarteak antolatuta, *Emakume eta gizon homosexualak historian zehar* izeneko erakusketa ikusgai izango da hilaren 16etik 25era.
- **Odol-ateratzea.** Odol-emaileen hileroko hitzordua 18:00etan izango da hilaren 19an.
- **Amaluz jardunaldiak.** Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta, hilaren 28tik 30era izango dira, 19:30ean.

Leidor aretoa

- **'La olla' antzerkia.** La Mancha taldearen eskutik, eta Anade fun-



Omar Faruk Tolosan izango da. HITZA

- dazioak antolatuta, hilaren 9an izango da, 20:30ean.
- **'Magia teilatueta'.** Haurrentzako antzerkia izango da 17:00etan, hilaren 10ean.
- **'Monologoka'.** Monologoaren zikloa izango da hilaren 23, 24 eta 25ean.
- **'Begiz begi'.** Alberto Iñurrategiren proiektua izango da ikusgai hilaren 27an, 20:00etan.
- **Amarozko antzerki taldea.** Hilaren 30ean, 22:30ean izango da.
- **Omar Faruk.** *Mundua Tolosan* zikloaren baitan izango da kontzertua, hilaren 31n, 20:30etik aurrera.

Besterik

- **Jose Mari Gorrotxategiri omenaldia.** Hilaren 17an izango da udaletxean, 11:00etatik aurrera. Ondoren bere erakusketa inauguratuko dute.
- **Txapin festa.** Hilaren 17an izango da herriko gazte lokalen festa.
- **XIV orduak.** Hilaren 18an izango da ibilaldi neurtua.
- **Garrett Wall.** Frontoi kafetegian izango da bere kontzertua, hilaren 23an, 23:00etatik aurrera.
- **Stand-Comedy.** Monologoka zikloaren baitan izango da Fronton Kafetegian, 23:00etan hasita.
- **Disko festa.** Beotibar pilotalekuan izango da hilaren 24ean.
- **Turkiaren astea.** Hilaren 22tik aurrera izango da.
- **Korpus eguneko prozesioa.** Tolosako Musika Bandaren eskutik izango da hilaren 25ean.
- **Kirol gaua.** Usabal kiroldegian izango da, hilaren 31n, 17:00etatik aurrera.
- **XIV. Musikaria astea.** Udala Eskolako antolatuta hilaren 26tik ekainaren 1era izango da.

Laburrak

'Mi monstruo y yo' eta 'Seda' ikusgai dira Gurean

VILLABONA » Gurea zineman *Seda* filma izango da ikusgai asteburu honetan. Gaur, 22:30ean, bihar, 19:30ean eta astelehenean, 21:30ean. Honez gain *Mi monstruo* y yo ere eskainiko dute bihar arratsaldean. Emanaldia 17:00etan izango da.

Kontseiluaren erakusketa ibiltaria etzi iritsiko da

TOLOSA » Kontseiluaren erakusketa ibiltaria Tolosan da, eta etzi irekiko ditu atek Kultur Etxean. Bestalde, Kontseiluaren 10. urteurrenaren ospakizunen baitan, Kontseiluko kide den Urko Aierberen hitzaldia izango da etzi, udaletxean.

Gaur, Oinkari taldearen emanaldia Idiazabal

VILLABONA » Oinkari dantza taldeak *Aspaldikotik* emanaldia eskainiko du gaur Idiazabalgo (Gipuzkoa) Igarondo pilotalekuan. Sarrerak sei euro balioko du. Oinkari dantza taldeko 75 dantzariak Juan Kruz Igerabideki idatzitako sorginen ipuin batetan murgilduko dira 7 musikariren laguntzarekin. Bertan Euskal dantza, zuzeneko musika, argi efektuak eta sorginen ipuin eder bat izango dira emanaldiaren osagai nagusiak.

Andatza Eguna ospatuko dute bihar Zizurkilen

ZIZURKIL » Andatza Eguna ospatuko dute bihar Zizurkilen. Honen bestez, hainbat ekitaldi izango dira egunean zehar. Hasteko, 11:00etan, hamaiketako izango da, salda, txorizo, haragi egosi eta edariarekin. 12:00etan berriz, herri kirolak izango dira haur nahiz helduentzat. Segidan, 14:00ak aldera, bazkaria izango da, baina, bakoitzak berea eramanda. Honez gain, goizean erromeria izango da, trikilitari eta bertolariekin.

ARAMBURU

Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m², guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pztza)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkele auzoan.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. Igoailuarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000pztza negoziagarriak)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Ibarra). Etxebizitza. San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000pztza)
Salgai (Ibarra). Lokala, Euskal Herria kalean.
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amartzen (Tolosa) eta Idoiagan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko, Araba etorbidean eta Baxiler Zaldibian.
Alokatzeko (Ibarra). Pabillio industriala, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Hodei Truk abesbatzak urrezko domina lortu du Torreveijan

Tolosa » Habaneren Nazioarteko XIV. Gazte Lehiaketa jokatu zuten bertan; Tolosakoak gustura daude egindako lanarekin.

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan Tolosako Hodei Truk abesbatzak urrezko diploma lortu zuen Torreveijan ospatzen den Habaneren Nazioarteko XIV. Gazte Lehiaketan.

Lehiaketa apirilaren 25ean, 26an eta 27an garatu zen, eta bertan, Portugal, Letonia, Asturias, Valentzia, Tarragona eta Madrildik etorritako 9 abesbatzek hartu zuten parte. Horiek guztiak alde



Irudian, Hodei Truk abesbatzako kideak. HITZA

aurretik aukeratuak izan ziren eta oso prestakuntza maila altua erakutsi zuten.

Emanaldi bikaina izan zen eskualdeko gazteena. *Habanera Saldada* derrigorrezko obratz gain, bi

euskal habanera herrikoi kantatu zituzten, Tomas Garbizuren *Zugana Manuela eta Loriak Udán*. Ahots zurientzako bertsioan lehenengoz interpretatuz. Aukera asketako atalean abesbatzako zuzen-

dariak konposatutako *Tirikitauki* abestu zuten. Honek olagizonen eritimo sutsuak deskribatzen ditu eta entzuleak harri eta zur uztea lortu zuen.

Epaimahaiaik parte-hartzaileen maila gorena azpimarratu zuen, zilarrezko 3 diploma eta urrezko 6 banatuz. Horietatik bat Hodei Truk abesbatzari eman zioten gainera. Sariak horrela banatu ziren: lehenengo saria Asturiaseko Leon de Oro abesbatzako txikiak, bigarrena Riga (Letonia) hiriko abesbatzari eta hirugarrena Errenterriako Orereta abesbatzari. Hodei Truk saria jasotzearen atean gelditu zen.

Lehiaketa zuzenean jarraitu ahal izan zuten abesbatzako kideen senideek, internetez eman baitzen emanaldia. Hodei Trukekoen esanetan «gustura» errepikatuko luketen esperientzia izan zen hura. Baita beraien «gazte-abetesbatzaren lanaren aitortpena ere».

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FELIPA BALERDI ZUBELDIA
ANDREA
(Juan Bautista Eliolaren alarguna)
-Golanbego-

+

Zure begien dizdira
eta irrifar goxoak
beti izango ditugu gogoan.

Balerditar sendia

BEDAIO-TOLOSAN
2008ko maiatzaren 3an

Hodeiertz handi nahirik ez zuten gazteez osatu zuten 1983. urtean. Hogeita bost urte beranduago, nazioartean abesbatza oso garrantzitsua bilakatu dela esan daiteke.

25 urte arrakastatsu

HARRIET BELLOSO

Musika koralak garrantzi handia izan du Tolosan. Urtero ospatzen den Abesbatza Lehiaketa Europa guztian ezagutzen da eta bertan maila handiko koruek parte hartzen dute. Txapelketaz gain, herria musika korala mapan ezarri duen abesbatza bat ere egon da: Hodeiertz.

1983. urtean gazteez osaturiko koru misto bat sortu nahi zen Tolosan. Eskolapioen eta Frantsesen ikastetxeetan deialdia egin zuten eta azkenean 50 pertsonen eman zuten izena, kopuru altua garaiko egoera kontuan hartzen badugu. Hastapenak gogorak izan ziren, eta nahiz eta gutxi jakin, jendea ilusio handiarekin joaten zen entseguetara. Abesbatzen Federakuntzak ikastaro ugari antolatuta zituen urte horietan eta musikan aditua zuten jende askok abesbatzen munduan sartzea erabaki zuten.

Tolosako Abesbatza Lehiaketak ere eragin zuzena izan zuen. Hodeiertz abesbatzarentzat urte politak izan ziren, jendea lana egiteko gogoekin zegoen eta etorkizuna ilusioarekin ikusten zen. Hasieratik argi zegoen autogestionatutako abesbatza izango zela, handi nahi eta helburu handirik gabe. Lehenengo urteetan talde eta irakasle garrantzitsuen laguntza izan zuten, koruarentzat onuragarriak izan ziren gauzak ikasteko aukera izanik.

Lehenengo lehiaketak

Abesbatzaren lehenengo lehiaketa 1986. urtean izan zen Avilesen. Urtebete beranduago, Zaragozako Ejea de los Caballerosen (Espainia), bere lehen saria irabazi zuen. Txapelketa horretan lortutako bigarren saria izugarriko arrakasta izan zen kide guztientzat eta datorren urteetan jarraitu beharreko bidea adierazi zuen.

1987 eta 1988 urteetan Espainiako Txapelketa ezberdinetan aritu ziren leku eta gauza berriak ikasten. 1989. urtean Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartu zuten lehenengo aldiz. Jendea oso gogotsu zegoen eta oso emanaldi ona eskaini zuten folklorea, saillakapeneko bosgarren postuan amaituz.

Ikusleen harrera oso ona izan zen, eta hori dela-eta Belgikako lehiaketa batean parte hartzeko gonbidapena jaso zuten. Abesbatza gazteez osatutako txapelketa

izan zen eta Hodeiertzek oso maila ona erakutsi zuen bere nazioarteko lehenengo ekitaldian.

90. hamarkada arrakastatsua

1991. urtean Bulgariako Varna hirian ospatu zen txapelketan abesbatzak lehen saria lortu zuen. Eramandako programa oso ona zen eta lehiaketaren zehar ondo abestu zuten, baina inork ez zuen espero garaipena lortzea. Finalean Ukrainiako abesbatza ospetsua gainditu zuten, garaipenari merezimendu gehiago emanez. Urte asko pasa dira, baina Hodeiertz abesbatza lehen mailako sari bat lortu duen Euskal Herriko koru bakarra dela esan daiteke.

Hamarkada honetan Estatu Batuetan, Kanadan eta Frantzia abesteko aukera izan zuten. Baina kontzerturik bereziena Australian eskaini zuten 1996. urtean. Sydneyko Concert Hall famatuan abesbatzak bere ibilbideko momenturik ikusgarriena eta bereziena bizi zuen. Urte horietan Hodeiertz maila handiko emanaldiak eman zituen eta musika munduko pertsona garrantzitsuak ezagutu zituzten. Txapelketa garrantzitsuetan Euskal Herriko abesbatzen ordezkaria izan zen.

Elkarlan interesgarriak

Hodeiertz eta Tolosako Abesbatza Lehiaketaren arteko harremana oso ona izan da betidanik. Egun, koruko kide gehienak antolakuntza lanetan aritzen dira eta urtero laguntzeko prest azaltzen dira. Enrique Azurzak azaldu duen bezala harremana «onuragarria eta oso baliosua» da.

Hodeiertzek erlazio ona mantentzen du Gipuzkoako beste abesbatzekin. «Urte berdintsuan hasi ginen lanean zuzendari guztiak eta gure artean asko laguntzen diogu elkarri», dio Azurzak. 1992ko Hamabostaldian bi abesbatzen arteko elkarlana ikusteko aukera izan zen. Javier Bustosen koruarekin batera *Bikoruekin egini meza* obra egin zuten lehenengo aldiz Espainian.

Hogeita bost urte hauetan Hodeiertz estatu mailako abesbatzarik garrantzitsuenetariko bat bihurtu da. Sariak, bidaiak, emanaldiak... ilusio handiarekin hasi zen taldea musika koraleko erreferentzi bat da gaur egun. Koru gazte bat bezala mantendu da eta datorren urteetan izaera horrekin jarraitu nahi dute.



Tolosako 750. urteurrenean Hodeiertzek emanaldia eskaini zuen Leidor aretoan. MADDI SOROA

«Giza harremanak sariak baino baliosuagoak dira niretzat»

ENRIQUE AZURZA » Hodeiertz abesbatzako zuzendaria

Kultura » Hodeiertz abesbatzako zuzendaria izateaz gain, musika ikastaroak eman ditu Espainiako leku askotan.

H. BELLOSO

Enrique Azurzak (Tolosa, 1967) 23 urte daramatza Hodeiertz koruko zuzendari bezala. Urte hauetan taldearen arrakasta guztien lekuko izan da.

Nolakoak izan ziren zure lehenengo urteak abesbatzan?

Hasieran abesten hasi nintzen, baina zuzendaritzako ikastaroak egiten hasi nintzenez zuzendari bezala hobeto ariko nintzela ohartu nintzen. Koruko zuzendariaren arazoak izan genituen eta Jose Bustok abesbatzako zuzendaritza hartzeko proposatu zidan. Hemezortzi urte nituen eta musika buruz gauza gutxi nekizkien, baina hala ere erronka onartu nuen. Orain, ondo pentsatuz, inkontzientea izan nintzela uste dut. Ilusio handiarekin joaten nintzen ikastaroetara eta denbora laburren gauza asko ikasi nituen. Lan handia egitera behartuta ikusi nintzen, baina beharrezkoa zela iruditzen zait. Gauzak irakasten nin-



HARRIET BELLOSO

dukeratzen dugu eta hori izan daiteke gure arrakastaren sekretua. Gauza berriak egiten saiatzen gara eta gehienetan euskal autoreen obrekin lan egiten dugu. Euskal musika defendatzea gure helburuetariko bat da. Disko interesgarriak grabatu ditugu, Umama adibidez, eta sartuta egon gara proiektu guztietan oso ondo aritu gara esan digute. Hasierako ilusioa mantentzen dugu eta oraindik gauza interesgarriak egiteko gai gara ziur nago.

Abesbatzari zer bait falta zaio lortzeko?

Idea eta proiektu asko ditugu buruan, beraz gauza asko falta zaizkigu egiteko. Instituzio mailan esturktura finko bat behar dugula uste dut. Talde bezala oso ondo moldatzen gara baina esturktura profesionalago eta indartsuago bat beharrezkoa da. Gaztetxo ez osaturiko abesbatza bat osatzea zoragarria izango litzake zaharrenei jarraipena emateko, baina oraingoz ideia bat da soilik.

Zer bait azpimarratzea gustatuko litzazuke?

Giza harremanak sariak baino baliosuagoak dira niretzat. Urte hauetan gauza asko ikasi ditut eta gehienak harremanek emandako esperientziarengatik izan da.

doan bitartean beste batzuk ikasten nituen eta hori oso onuragarria izan zen niretzat. Oso urte bereziak izan ziren, abesbatzak, eta nik bereziki, mundu berri batez agutu genuelako.

Nola deskribatuko zenuke koruaren hazkundera?

Hodeiertz abesbatzak gauza garrantzitsuak egin dituela uste dut. Denborarekin talde heldu batean bihurtu da, kalitate gehiagorekin. Koru amateur bat gara eta beste batzuekin konparatuz mugapen asko ditugu, baina egiten ditugun gauzak oso ondo egiten ditugu. Lantzen dugun musika oso ondo

E Elkarrizketa

IZASKUN INTZA › Karrera amaierako Espainiako sariduna



L. GARCIA

Gehienbat egindako ikasketen jarraipen bat delako. Egin daiteke, noski, hasieratik ingeneritza hori, baina nik gomendatuko nioke jendeari lehenengo ingeneritza tekniko bat egitea. Ematen du urte bat galtzen duzula, hirugarren maila bi aldiz egiten duzulako, baina ez dut ikusten horrela. Nire ustez abantaila bat da, bost urteak oso luzeak egiten zaizkizulako, eta ingeneritza teknikoa eginez dagoeneko titulazio bat eskuratzen duzu. Laugarren mailan erabakitzen baduzu nazkatu egin zarela eta ez duzula jarraitu nahi, behintzat baduzu titulazio bat. Klasean badituz ikaskideak zazpi edo zortzi urte daramatzatenak eta hirugarren edo laugarren mailan daudenak. Karrera bukatu beharra dute, bestela ez dute titulaziorik.

Orain etxetik atera egin behar izan duzu ikasketak egiteko. Zer moduz alde hori?

Horrek ere ematen du beste berritasun bat. Bost edo sei urte leku berdinean egin edo hiru urte alde batean eta beste hiru beste batean egiteak ere errazago eramaten duzu. Iaz ere hori izan zen: beste leku bat, beste jende bat...

Beste karrera bat egiten ari zara, baina aurrekoan lortutako espedientearekin lana bilatzeko aukera asko izango zenituen.

Oraindik ez dakit. Ez naiz saiatu. Ingenieritza teknikoaren proiektu

Ibiurko obrarekin, klasean argazkietan ikusten duzuna bertatik bertara ikusi daiteke

tua aurkeztu eta hamar egunen buruan Burgosen nengoen beste karrera hasten. Badakit, halere, Donostian karrera bukatutako ikaskideak lanean ari direla denak. Bigarren promozioa izan ginen eta eskaera handia zegoen.

Herri lan asko egiten ditugu inguru honetan, beraz.

Bai. Beti esaten digute Burgosen, karrera bukatzerakoan EAEn, Madrilen eta Katalunian daudela aukera gehienak lan egiteko.

Zuri gertatzen zaizu obra bat egiten ari direla ikusten baduzu, gelditu eta begira hasten zarela?

Seguruenek, bai. Egiten ari naizen ingeneritzan hiru espezialitate daude. Niri gehienbat urarena gustatzen zait. Adibidez, orain Ibiur egiten ari direla eta, joan izan naiz bertara ikustera nola egiten ari diren. Klasean argazkietan erakusten dizutena aukera duzu gertutik ikusteko. Gainera, horrelako obra handi bat ez da askotan egiten.

Unibertsitateak uzten dizu denborarik beste zerbaitek egiteko?

Lagunekin ateratzeko bai. Horrez gain, denbora dudanean mendira joan ohinaiz haizea hartzeri. Hori, gehienbat herrira etortzerakoan. Burgosen zailagoa izaten da, hiri handia baita.

Anoeta › Herri Lanetako ingeneritza teknikoan Espainiako Karrera Amaierako saria lortu du Izaskun Intzak; egun ikasketak jarraitzen ari da ingeneritza bat eginez.

«Ikasten ari zarena gustatu behar zaizula da aurreneko gauza»

IMANOL GARCIA

Izaskun Intzak (Anoeta, 1985) karrera amaierako Espainiako lehenengo saria lortu du. EHU'n egiten ikasketak, Donostian, Herri Lanetako ingeneritza teknikoa, Garraio eta Hiri Zerbitzuetako espezializazioa, hain zuzen. Sari banaketa egiten pixka bat atzeratu dira, izan ere aurten banatu dute, baina Intzak 2006an amaitu zuen karrera. Hori amaituta, Burgosen (Espainia) Portu, Kanal eta Bideen ingeneritza ikasten hasi zen.

Zein izan zen zure batzbesteko nota ikasketetan zehar?

8,9a ateratu nuen.

Eta zer egin behar da horrelako nota bat ateratzeko?

Aurreneko gauza da ikasten ari zarena gustatu egin behar zaizula. Orduak sartu behar dituzu eta ez bazaizu gustatzen, alferrikakoa izaten da. Karrera bat aukeratzeko, gustatzen zaizun bidetik

hastea komeni da. Hortik aurrera, ikasketak egunean eramatea. Besterik misterio handirik ez du.

Sakrifizio handia eskatu dizu karrerarak?

Azterketa garaietan bai, baina bestela ez. Ikasturtearen hasieran beti lasaia go. Gero, otsailean eta ekainean, betikoa. Batzuetan Inauteririk gabe gelditu behar, azterketekin bat eginez gero.

Ez zaizu, beraz, zaila edo astuna egin?

Nik ez nuen egin nahi hasieran karrera luze bat, bost urtekoa. Ez nekien seguru nolako izango zen karrera bat egitea eta ez nuen karrera luze batean sartu nahi izan. Horregatik hasi nintzen karrera motza egiten. Hiru urte berehala pasatzen dira. Lehenengo urtean unibertsitate, leku berri batera, ohitzen joaten zara, jende berria ezagutu... Bigarrena pasatzen duzu eta hirugarrenean bukatzen

ari dela pentsatzen ari zara. Beraz, berehalaxe pasatzen da.

Nolatan aukeratu zenuen Herri Lanetako ingeneritza teknikoa egitea?

Nahiko garbi nuen ingeneritza bat egin nahi nuela. Pentsatu nuen ere topografia egitea. Azkenean, Herri Lanetako karrera berria zenez, nobedade horrek bultzatuta edo, sartu nintzen. Ez da ingeneritza industrial edo mekanikoa bezalakoa.

Abantaila bat da hiru urteko karrera bat egitea hasieran; bost urteko luzeegia izan daiteke

Zerikastan da zehazki karrera horretan?

Gure espezializazioa Garraioa eta Hiri Zerbitzuetan da. Beraz, garraioan, trafikoa ordenatzeari bu-

ruzkoak jasotzen genituen. Gero baita ere jasotzen dituzu ikasgaiak esturturei eta buruz. Hiri zerbitzuei dagokionez, uraren hornikuntza, saneamenduak, gasa, telekomunikaziorako sareak, urbanizazioak...

Orain goi mailako ingeneritza egiten ari zara, ezta?

Bide, Kanal eta Portuetako Ingenieritza egiten hasi naiz, Burgosen. Ingenieritza teknikoa egin dugunok aukera genuen hirugarren mailan sartzeko.

Zer dela eta hartu zenuen erabakia? Hiru urte egitea motz gelditu zitezaizun?

Ez, ez da hori izan. Hasieran baneu beldurra, baina ikusita azkar pasatu direla karrerako urteak eta etxean ere animatu nindutenez ikasten jarraitzea, erabaki nuen beste karrera hori egitea.

Eta zergatik zehazki ingeneritza hori?



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan!

Eutsi gogor orainari eta ekin geroari! Zorionak Gari!

Zorionak Gari!

Eutsi goiari. Leaburu-Txaramako lagunak.



Juan Saizar eta Juli Arostegi (Tolosa).

Gaur urrezko ezteiak. Zorionak familiaren partetik.



Urte askoan!


Amaia Otamendi Salaberria.

Gaur 7 urte. Familiaren partetik zorionak eta muxu bat.



Urte askoan!

Maddi (Tolosa). Gaur 3 urte egiten ditu. Zorionak eta muxu handi bat!



Urte askoan osaba!

Inbidie, ezta? Earra zeok! Zorionak eta marrubizko muxutxoak! Ekiñe, Haimar eta Olatzen partetik. Animo eta eutsi goiari!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEA, LASKORAIN IKASTOLA, ZEURE AUKERA

- Kalitatezko heziketa euskalduna
- Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezikuntzarako ikastola.
- Unibertsitateko zein Lanbide Hezikuntzarako bide guztiak irekiko ditugun ikastola.

Batzilergoko eskaintza zabela duela:

- ✓ Giza eta Gizarte Zientziak
- ✓ Zientziak eta teknologia

Izema onak eta apurak - Muzketaren Zerbitzua ikastola
 Ikastetxearen ibilbidea, Tolosa - Araba 36
 Oribategi - 700 - 1500 eta 1500 - 1600
 Argibete gehiago: Tel: 943 47 44 36 web: www.lestoaaditxakola.net